

Soziolinguistika albistaria

35. zenbakia
2018ko apirilak 13 – maiatzak 3

Soziolinguistika Klusterraren albisteak

2016ko datu soziolinguistikoaren analisi zabala BAT Aldizkariaren 106. zenbakian

2018. urte honetako BAT Soziolinguistika Aldizkariaren lehen zenbakiak (106) 2016ko bi datu-iturri soziolinguistiko nagusiak ditu gai monografikotzat: VI. Inkesta Soziolinguistikoa eta VII. Euskal Herriko Hizkuntzen Erabileraren Kale-neurketa. Bi ikerketa horietako a...

Soziolinguistika EHUren uda ikastaroetan: matrikula zabalik

Urtero bezala, EHUren uda ikastaroen aurtengo edizioan bi aukera eskainiko ditu Soziolinguistika Klusterrak. Zer egin ahozko komunikazioa eskolan lantzeko? tailerra (Uztailaren 4 eta 5ean Barakaldon) eta Jendaurreko euskarazko komunikazioa: praktikatik ikasten ikasta...

"Euskaraldia: 11 Egun euskaraz" ekimenaren eragina ikerketa baten bidez neurtuko da

Azaroaren 23an hasi eta abenduaren 3an amaituko den ekimenean Euskal Herriko milaka pertsonak parte hartuko duela aurreikusten da, guztiak ere euskararen erabilera sustatzeko gogoz. Ekimenaren eragina eta arrakasta neurtzeko, Soziolinguistika Klusterrak ikerketa buru...

EUSLE metodologiaren azalpen-bideoa ikusgai

Otsaila eta martxoaren artean EUSLE metodologiaren inguruko hainbat aurkezpen egin zituzten Aldahitz proiektuaren arduradunek EHUren hiru campusetan, unibertsitatea bultzatzen ari den Aktibatu egitasmoaren baitan. Martxoaren 1ean Ibaetako Campuseko Informatika Fakultate...

Batzar Orokorra maiatzaren 10ean Andoainean

Soziolinguistika Klusterrak datorren maiatzaren 10ean egingo du Ohiko Batzar Orokorra, Martin Ugalde Kultur Parkean. Erakundearen urteroko batzarrean lantzen diren ohiko gaiez gain, beste eduki gatzuk lantzeko baliatuko da saioa. Soziolinguistika Klusterrak hiru bali...

Ikerketak

Bigarren eta hirugarren hizkuntzetako komunikazio-antsietatearen inguruko ikerketa

(EHU) UPV/EHUko DREAM ikerketa-taldean egindako ikerketa baten emaitzek agerian utzi dute hiztunek antsietate-maila desberdinak senti ditzaketela hitz egiten duten hizkuntzaren arabera. Halaber, berretsi dute zer erlazio dagoen antsietatearen eta beste zenbait faktor...

Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak

Gutxiengoaren hizkuntzak digitalizatzeko esperientzien tailerra Zaragozan

(Elhuyar) LINGUATEC Europako proiektuaren barruan. Euskal Herriko, Frantziako eta Espainiako 6 erakundek hartu zuten parte topaketan

Euskarazko Internet eguna 2018, maiatzaren 17an Donostian

(Sustatu) Maiatzaren 17an, Nazioarteko Interneten Egunean, Euskarazko Internet Eguna ere ospatuko da, hirugarrenez. Miramon Parke Teknologikoan izango da arratsaldeko 17:30etan, UEU-k antolatutako Informatikari Euskaldunen Bilkuraren ostean. Zatoz eta ospatu gurekin ...

Liburuak eta argitalpenak¹

'Asedio al euskera', Torrealdairen salaketa liburu berria

(Sustatu) Joan Mari Torrealdaik 'Asedio al euskera' liburua argitaratu du, 'El libro negro del euskera' atera eta hogeit urtera. Euskararen kontrako iritzi eta politiken bilduma berrian, zenbait kontzeptu nabarmentzen ditu Torrealdaik. Batetik, matxismo diskurtsiboa: ...

Compter les langues: histoire, méthodes et politiques des recensements de population

(CSLF) L'objectif de cette revue de littérature est de présenter un état des lieux de la recherche scientifique sur les enjeux sociaux, politiques et linguistiques du recensement des langues, proposant une analyse des travaux internationaux réalisés dans divers ...

Revitalising Language in Provence: A Critical Approach (James Costa)

(WILEY) Revitalising Language in Provence: A Critical Approach questions the concept of language revitalization and challenges the field's main tenets through a detailed analysis Southern France's Provençal movement, one of Europe's longest standing language r...

¹Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean **HABE Liburutegira** (liburuteqi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

Bestelako albisteak

Hizkuntza Indigenen Nazioarteko Urtea (2019) antolatzeko prestaketetan aurrera darrai UNESCOk

(UNESCO) The 2019 International Year of indigenous Languages (IY2019) aims to draw attention to the critical loss of indigenous languages and the urgent need to preserve, revitalize and promote them, as well as to the necessity to take further urgent steps at nation...



BABESLEA



Gipuzkoako
Foru Aldundia

BAZKIDE PARTAIDEA

emun
HIZKUNTZA ZERBITZUAK